

ERAIKINAK ETA KALEAK

Eraikinak eta kaleak oso interesgarriak dira, eta ez haien barruan aurkitzen dugunagatik bakarrik, baizik eta erakusten digutelako noiz, nola eta zergatik egin zituzten. Haiei esker, garai bakoitzean bizi izandako pertsonen bitxikeria ugari jakin ditzakegu.

Garai batean, eraikinak egurrezkoak ziren batez ere, baina suteek erraz suntsitzen zituzten. Hain zuzen ere, Donostian 1489ko sute izugarriaren ondoren hasi ziren eraikuntzetarako harria baliatzen. Denboraren poderioz, aldatu egiten dira eraikinak, diseinua eta eraikitzeke modua, politagoak eta seguruagoak izateko eta gure premietara hobeto egokitzeko.

Atal honetan, trikimailu batzuk emango dizkizugu, eraikinei beste begi batzuekin begiratzeko eta bitxikeria batzuk deskubritzeko.




EC1 GIPUZKOA PLAZA

Plaza hori hiriko garrantzitsuenetako bat da, hainbat arrazorengatik:

1. Alde batean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregia dago.
2. Lorategi txiki bat du, zuhaitz eta landare bereziekin, bai eta urmael bat ere, ahate eta beltxargekin.
3. Haren sekretuak direla eta, leku paregabea da.

Nahi duzu elkarrekin deskubritzea?



Gabonetan izaten da lorategi hau bisitatzeko urteko unerik politenetako bat, 150 irudi baino gehiagoko jaiotza handi bat jartzen baita bertan.

Gipuzkoa plaza parkea

Plaza honetako lorategia estilo erromantikokoa da, eta 1877an diseinatu zuen Pierre Ducassek. Sekulako gozamina da, baso ingeles txiki bat ematen baitu, hiriaren erdi-erdian.

Zuhaixka, zuhaitz eta landare asko Aieteko jauregitik eta Cristina Eneatik ekarri zituzten. Lorategi txikia dirudien arren, 3.500 zuhaixka daude bertan!

Horretaz gainera, diseinuak hamar bat zuhaitz exotiko zituen, baina zaila zen haiek lortzen. Horregatik, Ducassek berak lursail batzuk erosi zituen Ategorrietan, eta bere haztegiak eraiki zituen. Horixe da gaur egun Uliako Mintegietako Parkea izenarekin ezagutzen duguna.

Baina altxor naturala ez da haren bereizgarri bakarra. Esan dizugunez, sekretu asko ditu; izan ere, parke honetan lehenago ikusi ez dituzun elementu batzuk topatuko ditugu:

1. Jose Maria Usandizaga musikari donostiarrari eskainitako monumentua.
2. Tenplete meteorologiko oso bat.
3. Marmol zurizko ordu-mahai handi bat.
4. Kolore askotako lorez eraikitako erloju handi bat.
5. Plaka bat (ia ezabatua), Ducasseren omenez ipinia.



Tenplete meteorologikoa eta ordu-mahaia

Jose Otamendi ingeniari donostiarra oparitu zizkion elementu horiek hiriri, izugarri maite baitzuen astronomia.

Mahai haren gainean, gure hiriko eta munduko beste hiri batzuetako ordu-datuak ikas ditzakezu.

Adibidez, solstizioetan (ekainaren 21ean eta abenduaren 21ean) eta ekinozioetan (martxoaren 21ean eta irailaren 21ean) eguzkia nondik ateratzen eta non sartzen den

adierazten du.

Tenplete meteorologikoan ganga bat dago Hartz Handiarekin, Iparrizarrekin eta konstelazio batzuekin.

Abuztuaren 1ean, Donostiako zeruan gau-partean ikusten diren izarrak aurkitzeko balio du, oskarbi egonez gero.

Bi elementu horietaz gainera, Otamendik kanoitxo bat ere jarri zuen, zeina 12:00etan jaurtitzen baitzen; izan ere, eguzki-izpiek ordu horretantxe pizten zuten haren metxa.



OHARRA.

Zenitari buruz hitz egiten dugunean, behatzailearen buruaren gainean dagoen zeruko puntuari buruz ari gara.



**Deskubritzeko.
12:00etako adarra.**

Esan dizugun bezala, XIX. mendearen amaieran egunero 12:00etan tiro egiten zuen kanoi bat zegoen Gipuzkoa plazan. Ordu horretan, eguzkia lupa batekin lerrokatzen zen, zeinak metxari seinalatzen baitzion.

Gipuzkoa plazako kanoitxoa armagabetu ondoren, El Pueblo Vasco egunkariak (gaur egungo Diario Vasco) eguerdi-partean zarata apur bat egiteko ohiturekin jarraitzea erabaki zuen, eta aire-erasoen kontrako sirena bat instalatu zuen Garibai kaleko bulegoan.

1936an egunkariak bulegoa lekuz aldatu zuen, eta Relojería Internacional establezimenduak hartu zuen haren lekua. Harrezkero, hura arduratzen da eguerdietan sirena jotzeaz. Hala, adar-hotsa entzuten dugunean, donostiarrok badakigu 12:00ak direla. Eta turistak, berriz, harri eta zur geratzen dira ingurura begira, zer espero jakin gabe!



Gehiago jakiteko: Japoniatik ekarritako gereziendoak

Tokioko alkateak Donostia bisitatu zuen 1935ean, eta gereziendo batzuk oparitu zizkigun: herrialdeko ikur garrantzitsuenetako bat dira. Urmaelaren ondoan daude gereziendo japoniar horietako bi.



Badakizu nor den? Pierre Ducasse

Pierre Ducasse Baionan jaio zen 1836an, eta urte asko egin zituen Donostian, belle époque garaian. Orduantxe ari ziren eraikitzen Zabalgunea, eta haren lana hiriko berdeguneak diseinatzea izan zen, politagoa izan zedin.

Ducassen lanen artean, hauek nabarmentzen dira:

1. Gipuzkoa plazako lorategia.
2. Cristina Enea (zenbait pertsonaren artean diseinatua).
3. Aieteko Jauregiko parkea.
4. Miramar Jauregiko parkea.





EC2 LA DIPUTACIÓN

Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregia Gipuzkoa plazaren alde batean dago. 1879an diseinatu zuen Jose Goikoa udal-arkitektoak, hiru eraikin balira bezala: bata nagusia, eta beste bi albo banatan, fatxada monumental bakarraren azpian.



Donostiako Udalak hirirako legeak eta arauak egiten ditu, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, berriz, lurralde historikokoak.



Zoritxarrez, 1885ean eraikitzen amaitu eta berehala, sute batek ia osorik kiskali zuen, eta fatxada eta zimenduak bakarrik salbatu ziren.

Berrirori eraiki behar izan zen, eta azkenean 1890. urtean amaitu zuten.



Fatxada eta nabigatzaile gipuzkoarrak.

Eraikinaren fatxadan, Gipuzkoako bost nabigatzaile sonaturen bustoak nabarmentzen dira. Oso altu daude, eta badakigu jende askok ez ziela inoiz erreparatuko. Halere, garrantzi handikoak dira historian. **Eta zuk, ezagutzen dituzu?**



Zer iruditzen zaizu joko bihurtzen badugu? Lotu busto bakoitza nabigatzaile bakoitzarekin.

Andrés Urdaneta

(Ordizia, 1508 - Mexiko Hiria, 1568): mundu osoan aintzatetsia da, Itzulbidaia aurkitu eta dokumentatu baitzuen Ozeano Baretik barrena.

Blas de Lezo (Pasaia, 1689 - Cartagena de Indias, 1741): Espainiako Armadaren historiako estratega onenetakotzat jotzen da.

Juan Sebastián Elcano (Getaria, 1486 - Ozeano Barea, 1526): munduaren lehen bira osatu zuen Magallaes-Elkanoren espedizioan.

Antonio de Oquendo

(Donostia, 1577 - Coruña, 1640): Felipe IV.aren gerra-kontseilaria, ehun itsas borrokatuan baino gehiagotan parte hartu zuen.combates navales.

Miguel López de

Legazpi (Zumarraga, 1502 - Manila, 1572): Filipinetako lehen gobernadorea eta Manilaren sortzailea izan zen.



EC3 MARÍA CRISTINA HOTELA

Maria Cristina Hotela eta Victoria Eugenia Antzokia aldi berean eraiki ziren, biak plazaren eta Okendoren monumentuaren artean banatuta. Urumea ibaiaren ondoan dago, itsasoari begira, eta belle époqueko aristokraziaren hotel gokoena bihurtu zen.

Inauguratu zenean, hotelaren oinplanoak «L» itxura zuen. Urte batzuk geroago, hirugarren hegal bat gehitu zitzaion, eta «U» forma hartu zuen eraikinak. Bitxia bada ere, hegal berria etxebizitza-eraikin independentea zen, eta ez zen hotelaren parte.

Donostiako Nazioarteko Zinemaldia sortu zenean, hotelak distira berreskuratu zuen. Izan ere, hotela Victoria Eugenia Antzokitik gertu egoteak aukera ematen zuen izarrak alfonbra gorriaren gainean batetik bestera igarotzeko, eta, hala, nazioarteko jaialdiaren elementu bereizgarrietako bat bihurtu zen.

Eraikin horretan hartu zuten ostatu Bette Davis, León Trotsky, Mata Hari, Maurice Ravel, Coco Chanel, Audrey Hepburn, Alfred Hitchcock, Steven Spielberg, Mick Jagger eta halako pertsonaia ezagunek.



**Gehiago jakiteko:
Gerra Zibileko balak.**

Espainian Gerra Zibila hasi zenean, gure hiria bi aurkariren arteko borrokaren erdi-erdian zegoen: Eibar vs Iruñea eta Gasteiz. Gerra hasi eta hiru egunera, soldadu nazionalen eta soldadu errepublikanoen arteko batailaren agertoki izan zen Donostia.

Bi egun luzetan zehar, nazionalen eta errepublikanoen arteko tiroketak ez zuen izan etenik: lehenengoak Maria Cristina hotelean zeuden, eta bigarrenak, berriz, Victoria Eugenia antzokian. Imajinatzen duzu a zer-nolako panorama? Borroka hura errepublikanoek irabazi zuten, baina gerra ez zen hor amaitu...



Bala-zuloak kaletik ikusgai daude oraindik, historiak utzitako lezio gisa.



EC4 VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Eraikin hori 1912an altxatu zen, belle époque garaiko estetika tipikoarekin. Francisco Urkola izan zen arkitektoa; hura izan zen Espainian hormigoi armatua erabili zuen lehenengoetako bat —garai hartan asmatu eta patentatu berria—, eta, material hari esker, erresistenteago bihurtzen ziren eraikinak.

Antzoki hartan egiten ziren antzezlanak, kontzertuak, balletak eta abar ia XX. mende osoan zehar, eta Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren agertoki nagusia izan zen Kursaal jauregia eraiki aurretik.

Antzokia 2007an eraberritu zuten, eta 910 eserleku ditu. Agertokiaren azpian zulo bat dauka, eta 60 musikari inguru sartzen dira bertan!



BALKOIAK.

PALKOAK.

ANFITEATROA.

BESAULKI-PATIOA.

Ba al zenekien antzokietako anfiteatroa, zatirik garaiena eta agertokitik urrunen dagoena, «galeria» deitzen dela euskaraz?





EC5 BRETXA

Bretxako azoka izan zen Kortazarren zabalgunean eraiki zuten lehenengo eraikinetako bat (1870), merkatuak leku gehiago izan zezan eta Konstituzio plazatik atera ahal izateko.

Eraikinerako lehen diseinuak U forma zuen, eta irekia zen goitik. 1898an, handitu egin zen: erdiko patioa estali eta Boulevardera ematen duen fatxadaren erdiko zatia gehitu zioten.



Donostiarren artean, baserritarren azoka izenez ezagutzen da; izan ere, Donostiako eta inguruko baserritarrak etortzen dira lekaleak, frutak eta barazkiak saltzera.



Urte batzuk geroago, 1928an, Juan Rafael Aldaik atzeko aldean dagoen Arrandegia eraikina eraiki zuen. Gaur egun, lurpeko janari-merkatu batek lotzen ditu bi eraikinak.

Bretxako plaza eta hura mugatzen duten kaleak hiri-hutsune bat izan ziren hiriko harresiak eraitsi zirenean, eta, beraz, urteetan era guztietako egitura finkoak eta behin-behinekoak izan dituzte: zurezko eta hormigoizko eraikinak, kioskoak, egur eta harrizko bankuak, azokarako postuak, azokari itsatsitako arkupe desberdinak... Suhilzaileen parkea ere hantxe egon zen 1930era arte!



Nondik datorkio izena?

Harresiz inguratutako hiri bat inbaditu nahi duzunean, onena da harresiaren punturik ahulenetako bat bilatzea eta hura bonbardatzea, harik eta zulo bat ireki arte, erasotzera sartu ahal izateko. Dirudienez, Donostiako harresiak ere bazuen ahulgune bat, eta hortxe bertan zegoen, bretxa izenez ezagutzen dugun tokian.



1719an, Berwickeko dukearen tropek eraso egin zioten hiriari, eta harresiaren inguru horretan bi zulo ireki zituzten.



Puntu horretan bertan, Ingalaterra eta Portugalgo soldaduek sartu eta hiria erre zuten 1813ko abuztuaren 31n.

Berwickeko dukea eta haren 16.000 gizonak harresien ondoan zeuden, eta Felipe V.a eta haren 15.000 soldaduak, berriz, Lesakan. Dukea Aieteko gainean instalatu zen egoera menderatzeko; bien bitartean, donostiarrek Santa Katalina zubia moztu zuten, eta hiria uzteko agindua ematen zieten emakumeei eta haurrei.

Kanoiak prest zeuden Zurriolako harresia gainditzeko.

Berwick Irunera iritsi zen.



Apirilak, 20

Apirila - maiatza

Ekainak, 23

Uztailak, 24

Uztailak, 25

Behobia, Hondarribia, Oiartzun, Errenteria, Pasaia... hartzen joan zen.

Berwicken tropen eraso hasi zen.

Harresia erortzen zen bitartean, donostiarrek ordu erdiko su-etena eskatu zuten, eroritakoak erretiratzeko.

Las dos brechas abiertas en la muralla eran tan importantes que las tropas españolas se rindieron y cesó el ataque.



Uztailak, 26-27

Uztailak, 29

Abuztuak, 1

Abuztuak, 17

Abuztuak, 25

Frantsesek Santa Katalina hartu zuten, eta gotorleku bat egiten ari ziren Amaran. Hilaren 27an erabateko gerra izan zen, bi aldeetako kanoien tiroekin, eta zuloak egin zituzten gure harresian —bretxak—.

Espainiarrak Motako gazteluan gotortu ziren.

Donostian zeuden 2.000 frantsesek alde egin zuten, Felipe V.ak planak aldatzea onartu zuenean.

Deskubritzeko. Donostiako garai bateko harresia

Aunque en el siglo XIX se derribó la muralla porque nuestra Nahiz eta XIX. mendean harresia eraitsi egin zuten gure hiria etengabe ari zelako hazten, oraindik ere ikus ditzakegu haren bi zati, hiriaren egitura berrira egokituta badaude ere.


Itsasoko atea, Portaletas izenez ere ezaguna.

Harresiaren aztarnak Boulevardeko aparkalekuan.



Ba zenekien?

DONOSTIAKO TXIKI MAPA HAURRENTZAT



Donostiako plano, 1552.




Hirira sartzeko ate nagusia, Lurreko Atea izenez ezagutzen dena, Kubo Inperialaren ondoan.




Zurriola edo bretxen eremua. Hondoan, San Telmo bastioitza, 1860.



Itsas Atearen argazkia, 1860 urtea baino lehenagokoa.



EC6 KURSAAL BILTZAR JAUREGIA ETA AUDITORIOA



Kursaal Biltzar Jauregia hiriko eraikin moderno ikonikoenetako bat da, eta barruan ekitaldiak egiteko erabiltzen da (azokak, kongresuak, kontzertuak...). Eraikinak bi kubo ditu, bata handia eta bestea txikiagoa, bai eta terraza bat ere bien artean. Bi kuboek gure mendietarantz markaturik dauzkate estalkiak: batak Urgullerantz eta besteak Uliarantz.

Rafael Moneo arkitektoaren erronka izan zen eraikin moderno bat integratzea XIX. mendeko eraikinez betetako gunean. Ibaira begia egitea lortu zuen; izan ere, kubook lehorreratutako bi arroka dirudite, kai-muturreko arroekin bat egin nahiko balute bezala



Kubo aretoa.

Kubo aretoa kubo txikian dago. Kutxa Fundazioak kudeatzen du aldi baterako erakusketa-areto hori, eta arte-erakusketa ugari biltzen ditu

ZER ZEGOEN LEHEN?

Garai bateko Gran Kursaal kasinoa

Gaur egun Kursaal Biltzar Jauregia dagoen lekuan, lehenago Gran Kursaal izeneko toki zegoen. Eraikin ikusgarri hartan, joko-kasinoa, jatetxea, zinema-aretoak, 859 ikuslerentzako antzokia... eta askoz espazio gehiago zeuden!

Groseko inguru horretan altxaturiko lehenengo eraikina zen, eta horregatik egin zuten denok ezagutzen dugun zubia.

Zoritarrez, ireki eta hiru urtera, 1924an, debekatu egin zuten jokoa, eta itxi egin behar izan zuten kasinoa. Beste erabilera batzuk ematen saiatu ziren arren, 1973an eraitsi egin zuten.





EC7 LA ALAMEDA

Horrela deitzen diogu donostiarrok Zumardiko pasealekuari edo kaleari.

Harresiak eraitsi ondoren, hiria handitzeko plana onetsi zuten, eta ez zegoen pasealeku handirik lorategi berdeekin, baizik eta etxe handi eta politak bakarrik. Hori ikusita, zenbait herritarrek aldaketa bat egiteko eskatu zioten Udalari: egin zezala pasealeku bat, alde berria eta alde zaharra lotzeko.

Harrigarria badirudi ere, horrek bi alderen borroka ekarri zuen (zumardiaren aldekoak eta kontrakoak), eta hainbat urtez iraun zuen gatazka horrek. Zumardiaren kontrakoek espazioa aprobe txatu nahi zuten, lurzorua oso garestia baitzen, eta eraikin gehiago egin nahi zituzten. Zumardiaren aldekoek, berriz, nahiago zuten espazio libre bat utzi, zuhaitzez jantzita. Ika-miken artean, azkenean, udalak bozketa egin zuen, eta gaur egun, zorionez, pasealeku handi bat dugu lorategiekin eta kiosko polit batekin —banda batek musika jotzeko lekua—.



Dohaintza-bilketa Boulevardean, udaltzaingoa rentzat. 1950



BITXIKERIAK:

Zumardi deitzen badiogu ere, lehenbizi landatu zituzten zuhaitzak makalak izan ziren, eta zumarrak.
«Boulevard» inoiz ez zen izan haren izen ofiziala, baina donostiarrok beti hala deitu izan diogu pasealeku zabal horri.



EC8 UDALETXEA

Badakigu udalak oso eraikin garrantzitsuetan egoten direla, udalerrri bat gobernatzen dutelako eta udal-zerbitzuak antolatzen dituztelako, baina gurea are bereziagoa da, duen iragana ikusita. Oraingoan, esango dizugu osoko bilkuren aretoa garai batean dantzaleku izan zela, besterik ez. Piztu zaizu jakin-mina?


Donostiako Kasino Handia

1887ko uztailaren 1ean inauguratu zenez, 1924 arte —orduan itxi baitzituzten legez aisialdirako leku guztiak—, gure hiriko udaletxea Kasino Handia izan zen. Belle époque garaiko politikari, idazle eta artistentzako entretenimendu-lekua. Jende asko etortzen zen kanpotik, jaiak, dantzaldiak eta kontzertuak egin baitziren han. Izan ere, Europa osoko kasinorik garrantzitsuenetako bat zen.

Egunero-egunero, kasinoko orkestrak doako bi kontzertu eskaintzen zituen Boulevardeko kioskoan, zeinak Alderdi Ederreko lorategietatik entzun baitzitezkeen.

Beheko solairuan jatetxea, kafea, billar-gelak, irakurgela, piano-gela, elkarrizketa-gela eta Areto Horia zeuden, joko-mahai baimenduekin.

Goiko solairuan, berriz, debekatutako joko-aretoak zeuden; sarbide oso mugatua zuen, eta erruletan, bakaran eta ausazko beste joko batzuetan aritzen ziren.



Deskubritzeko:
Alderdi Ederreko Palace karrusela

Situado entre los jardines de Alderdi Eder y la playade la Concha se Palace karrusela Alderdi Ederreko lorategien eta Kontxako hondartzaren artean dago, eta hirian 1900. urtean genuenaren erreplika bat da.




*Sabaiaren azpian, historiako koadro garrantzitsuen irudikapenak
topa daitezke eskuz margotuta, margolari oso ezagunen omenaldi
gisa: Van Gogh, Gauguin, Lautrec, Vallotton, Monet, Cezanne, Picasso
edo Degas...*





EC9 NAUTIKOA

*Inoiz galdetu al diozue zeuen buruari portura
iritsi aurretik dagoen itsasontzi formako
eraikinari buruz?*



Klub Nautikoaren eraikinak ederki asko erakusten digu zer-nolakoa zen 1930eko hamarkadako arkitektura.

Baina beste gauza batengatik ere nabarmentzen da: ohartu bazara, eraikin handiak eta etxe-bloke asko Igeldoko harriarekin eginak daude, eta harea kolorekoak dira —kolore horixe da nagusi hirian—. Eraikin hori, ordea, zuria da.

Eraikina ezin hobeto egokitzen da pasealekuan, portuan atrakatutako itsasontzi bat baitirudi. Oso originala da, ezta?

Haren ondotik itsasorantz barneratzen den plataforma da badiari begira izozki bat dastatzeko leku gogokoenetako bat.





EC10 KONSTITUZIO PLAZA

Konstituzio plaza da gure Alde Zaharraren bihotza. Plaza arkupean hori bizitzaz beteta dago eta jai askotako protagonista da.

Bertako eraikin nagusia hiriko udaletxea izan zen urte askoan, baina, txiki geratu zenean, Alderdi Ederreko Kasino Handira eraman zuten.

Historian zehar, plazak askotan aldatu du izena: Plaza Berria, Konstituzio plaza, Uztailaren 18ko plaza eta, berriz ere, Konstituzio plaza.

Izan ere, mardula da plazaren historia eta ugari dira plazaren istorioak. Nahi duzu haietakoren bat kontatzea?



Garai batean, plazak bi sarrera zituen gurdiekin sartzeko, eta beste bi zaldi gainean sartzeko. Zure ustez, nolakoak dira orain? Denak berdinak iruditzen zaizkizu?

Plaza Berria.

Gaur egun Boulevardeko kioskoa dagoen tokian, gutxi gorabehera, Plaza Zaharra izeneko enparantza bat zegoen; horregatik deitu zuten Plaza Berria izenarekin.

Plaza berri horretan ipiniko zuten udaletxea. Horretarako, obra handia behar zen, eta, ez zegoenez behar beste diru, bi neurri hartu zituzten dirua eskuratzeko:

1. Plazako etxeak saltzea, udalak eskubide batzuk erreserbatuz; esate baterako, balkoiak alokatzea zezenketak zezudenerako (hortik datoz balkoietan ikus daitezkeen zenbakiak).
2. Kalean saltzen zuten janari-saltzaileak plazara eramatea, eta tasa bat kobratzea trukean.



Mende batean baino gutxiagoan, hamaikatxo ospakizunen agertokia izan zen, merkatariak ikusten zituen negoziatzen, dibertitzen... Baina 1831ko abuztuaren 31n, 52 eguneko erasoaren ondoren, Wellington dukearen tropek gure hiriko harresietan zulo bat irekitzea lortu zuten —bretxa—. Hala, hiriko biztanleei eraso egin zieten, eta gure etxe eta kaleen parte handi bat erre zuten.

Plaza Berria berreraikitzea izan zen hiriaren berreraikuntzaren lehen mugarrria. Lurra inguruko eraikinetako hondakinekin berdinduta eraiki zuten. Beraz, gaur egungo plaza aurrekoaren gainean dago eraikita.

Plaza horretan ospatu ziren urte askoan ospakizun publiko guztiak, baita zezenketak ere! Horregatik daude balkoiak zenbakituta.



Gehiago jakiteko: San Tomas azoka.

Konstituzio plaza da San Tomas eguneko lekurik garrantzitsuenetako bat; hantxe egoten da, adibidez, eguna amaitzean zozketatzen den txerria.

Baina badakizu zer ospatzen dugun abenduaren 21ean?

XIX. mendearen erdialdean sorturiko jai bat da. Garai hartan, lursail gehienak alokatuak ziren, eta errentak abenduan ordaintzen zituzten. Garai hartan, baseritarrek Donostiara etorri eta herrietan ez zituzten produktuak erosten zituzten, eta, aldi berean, beren produktuak edo animaliak saltzen zituzten.

Halaxe sortu zen santomas-azoka.

Horregatik, donostiarrok baseritar janzen gara egun horretan, eta jantzi tradizionalak soinean ditugula ibiltzen gara Donostian barrena.

*Era berean, ohitura da
txistorra jatea, dela
ogi-tartean, dela
taloarekin.*






EC11 SAN BIZENTE ELIZA

SAN BIZENTE ELIZA

Badirudi gaur egungo San Bizente elizaren aurretik beste bat egon zela leku horretan bertan, baina San Salvador izenekoa. Eliza hartara, Baionatik Donostiara bizitzera etorritako gaskoi ugariak joaten ziren mezatarara.

Gaur egungo San Bizente eliza 1489 eta 1574 artean berreraiki zen.



Koxkeroak

Santa Maria jo zuten urte askotan hiriko eliza nagusizat, eta haren mende zegoen San Bizente.

1576tik aurrera, apezpikuak hiribildua eta eliztarrak banatu zituen. Zein kaletan jaio zinen, eliza batean edo bestean bataiatzen zintuzten. Hori horrela, San Bizenten bataiatutakoei koxkero deitzen zaie, tenplutik irteetan dauden harrizko kosken ondorioz.



BA AL ZENEKIEN?

Gaskoiak Gaskoiniako biztanleak dira, Frantziako hego-mendebaldeko eremu historiko batekoak. Frantziako eleberri ospetsuenetako bateko pertsonaia, D'Artagnan mosketaria, gaskoia zen.






EC12 ABUZTUAREN 31 KALEA

ABUZTUAREN 31 KALEA

Horixe da kalerik berezi eta kutunenetako bat donostiarrentzat. Hirian bizi izandako eraso ankerrenetako bati zor dio izena: 1831ko suteari. Kale hori bakarrik geratu zen egun hartan suntsitu gabe, eta, beraz, gure hiriko kalerik zaharrena da.

Hori dela eta, abuztuaren 31n desfileak egiten dira, guduen irudikapen historikoak, koruek abesten dute, biktimei lore-eskaintzak egiten zaizkie... Eta, egunaren amaieran, argiak itzaltzen dira eta bizilagunek kandelak pizten dituzte, kale horretan izaniko sute latza gogorarazteko.

1877ra arte, Trinitate kalea izena zuen. Gaur egun, kale horretatik barrena sartzen den plazari deitzen zaio izen horrekin.




Omenaldiak

Mendeurrenaren plaza erdigunea amaitzen eta Amara Zaharra hasten den lekuan dago. Sutea gertatu zela 100 urte bete zirenean eginiko omenaldia da, eta izen hori eman zioten.

Badakizu zer egin zuen Udalak 200 urte bete zirenean?

Beste omenaldi bat egin zen, eta Bigarren Mendeurreneko begiratokia izena eman zitzaion Kontxako pasealekuko begiratokiari; hantxe topa dezakegu, orobat, Eduardo Chillidaren Omenaldia Flemingi obra.





EC13 KORUKO ANDRE MARIAREN BASILIKA

Koruko Andre Mariaren basilika dagoen toki horretan bertan, eliza erromaniko bat zegoen aurretik. Gaur egungo basilika 1743 eta 1774 artean eraiki zen, eta Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarrak ordaindu zuen.

Santa Marian bataiatutakoak josemaritar deitzen dira, eta danborradako San Sebastianen ereserkian aipatzen dira.

Donostiako zaindaria

Koro izeneko norbait ezagutzen baduzu, ziur donostiarra dela edo baduela familia hemen.

Koruko Andre Maria hiriko zaindaria da, eta irailaren 8an izaten da haren eguna. Egun horretan, aldarearen aurrean ipintzen dute Andre Mariaren tailua. Hogei mantu dituen arren, egun horretan batere gabe erakusten dute.



BA AL ZENEKIEN?

Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarra zen 1730-1785 bitartean Venezuelan merkataritzan aritzeko baimena zuen enpresa bakarra. Itsasontziek Donostiatik irten behar zuten, eta, handik bueltan, Cadizen gelditu.

Organoa

Gipuzkoan dago Europako organo bilduma garrantzitsuenetako bat, 150 instrumentu ingurarekin.

Koruko Andre Mariaren basilikakoa da organo fabrikatu handienetako bat; ez tamaina eta diseinuagatik bakarrik, baizik eta instalazio konplexuagatik ere bai. Hain zuzen ere, bi urte eta erdi behar izan zituzten eraikitzeko eta instalatzeko.

Gaur egun, nazioartean aitortua da, eta munduan hobekien kontserbatutako Cavallé-Coll organoetako bat da.



***BIDE BATEZ, ZER DA
BASILIKA BAT?***

*Basilikak tamainagatik,
historiagatik edo beste ezaugarri
berezi batzuegatik nabarmentzen
diren elizak dira.*

*1973an, Paulo VI.a aita santuak
basilika txikiaren duintasun eman
zion tenplu horri.*



EC14 ARTZAIN ONAREN KATEDRALA

ARTZAIN ONAREN KATEDRALA

1897an inauguratu zen, eta haren estetika Alemaniako eta Frantziako Erdi Aroko elizetan inspiratuta dago, batez ere Koloniako katedral gotikoan.

Harresiak eraitsi ondoren, hiria azkar ari zen hazten, eta beste eliza bat behar zen egun Erdigunea izenarekin ezagutzen dugun eremu berrirako.



*Notre-Dame de l'Assomption (Rouen),
Jasokundeko Andre Maria (Rouen)*



*Hohe Domkirche Sankt Petrus (Köln),
San Pedro eta Andre Maria katedrala
(Kolonia)*



Donostiako Artzain Onaren katedrala

Eliza izatetik katedral izatera

Katedralak esan nahi du gotzaindegi bateko eliza nagusia dela. Eliza eraiki zenean, hiria Gasteizko gotzaindegiaren mende zegoen; beraz, eliza handi eta berri bat besterik ez zen. 1949an Donostiako gotzaindegia eratu zenean, katedral izendatu zuten Artzain Onaren eliza.



**HIRIKO ERAIKINIK
GARAIENA.**

*Orratz forma du, eta
75 metroko altuera.*



1518 Hauser y Menet.—Madrid

SAN SEBASTIAN


EL BUEN PASTOR: VISTA GENERAL

Nabe nagusia

64 m luze da.

25
metro
garai.

Kanpandorra,
75 m.




BA AL ZENEKIEN?

*Artzain Onaren katedrala Koruko
Andre Mariaren basilikako ate
nagusitik kilometro batera eraiki zen.*



1 km





EC15 CORREOS ERAIKINA

Donostiak 1863rako bazuen Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bat (gaur egungo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren parekoa); Andia eta Garibai kaleek bat egiten duten tokian zegoen.

Denbora gutxian, ikastetxe hori Udal Institutu bihurtu zen, eta, ondoren, Gipuzkoa osoko ikasleak etortzen ziren Donostiara ikasi ahal izateko. Andia kaleko eraikin berean instalatu ziren ikasleei zerbitzu gehiago emateko Arte eta Lanbide Eskola, Udal Liburutegi Publikoa eta Udal Museoa (gaur egun San Telmo Museoa gisa ezagutzen duguna).



Arte eta Lanbide Eskola modu esanguratsuan hazten ari zela ikusita, Donostiako Udalak beste eraikin bat egin zuen 1900ean Urdaneta kalean, Bigarren Hezkuntzako Institututik (gaur egungo Koldo Mitxelena) hurbil jarraitzeko, eta hara eraman zituzten Arte eta Lanbide Eskola, Udal Liburutegia eta Udal Museoa. 1960tik, Correosen egoitza nagusia hartzen du eraikin horrek, eta halaxe ezagutzen dugu.





EC16 KOLDO MITXELENA KULTURUNEA

Eraikin hori 1900ean inauguratu zen, Bigarren Hezkuntzako Institutu Probintziala izateko. Handik urte batzuetara, Amarara eraman zuten institutua, eta Nafarroako Unibertsitateko Ingeniaritzako Goi Eskola Teknikoari laga zioten eraikina.

Unibertsitateak utzi zuenean, erabat birgaitu zen 1993an (fatxadak izan ezik), eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren mendeko Koldo Mitxelena Kulturunea hartu zuen, eta, zehazki, haren liburutegia.

